

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

GUARDIA-ARABAKO ERRIOXAKO KUADRILLA

Titularrei ibilgailuak bide publikotik kentzeko errekerimendua. 4/2021 espedientea

Eltziegoko udalerrian abandonatutako ibilgailuaren jabeari ezin izan zaio jakinarazpen pertsonalik egin, bidalitako jakinarazpena baztertu egin baita. Eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 44. artikuluan xedatutakoaren arabera, interesdunari ibilgailua bide publikotik kentzeko agindua jakinarazten zaio.

Arabako Errioxako Kuadrillak abandonatutako hurrengo ibilgailuari buruz izapidetzen ari den espedientea ikusita:

Matrikula: 8832DTT.

Ibilgailua: Peugeot 206.

Jabea: Santiago Palacios Garcia.

Kokapena: Eltziego.

Jakinarazten dizugu Arabako Errioxako Kuadrillako bulegoetan eskuragarri dituzula abandonatutako ibilgailu gisa izapidetutako espedientea eta, zehazki, 39/2021 zenbakiko lehendakartzaren ebazpena, zeinetan adierazten baita aipatutako ibilgailua hiri-hondakintzat jotzen dela eta halakotzat kendu eta tratatzeko baimena ematen baita. Halaber, jakinarazten zaizu entzundirako eskubidea duzula, prozeduran pertsonatzeko eskubidea, eta argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamar eguneko epea alegazioetarako.

Epe horretan alegaziorik aurkezten ez bada, proposamen hori behin betikotzat joko da.

Bestalde, Eltziego udal-mugarteko ibilgailua hamabost eguneko epean kentzeko eskatzen dizugu, eta ohartarazten dizugu hori egin ezean erakunde honek subsidiarioki egingo duela, hiri-hondakin gisa tratatu eta ibilgailuak tratatzeko zentro baimendu batera eramango direla, ondoren suntsitu eta balizko kutsadura saihesteko, 6/2015 Legearen 106. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Horren berri ematen dizugu, jakinaren gainean egon zaitezten eta ondorioak izan ditzan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 82. artikuluekin bat etorriz.

Jakinarazten dizugu izapide-egintza bat dela, eta, beraz, ez dela bidezkoa haren aurkako errekurtsorik jartzea.

Egintza behin betikoa bada, ezarritako epean alegaziorik aurkeztu ez duelako, epe hori igarotakoan aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango du Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillan, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua, bi hilabeteko epean.

Egintza behin betikoa bada, ezarritako epean alegaziorik aurkeztu ez duelako, epe hori igarotakoan aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango du Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillan, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsua, bi hilabeteko epean.

Guardia, 2021eko irailaren 15a

Presidentea

JOSEBA FERNÁNDEZ CALLEJA